

LUMA BERRIEN AZTARNAK



Mikel Gartziarena

Donostiakoa (1992). Idazle-eskolako ikasle ohia. Irakasle-ikasketak eginikoa; orain, Euskal Herriko Unibertsitatean, lau urteko ikerketa-lanean murgildua.

Fotografía: **Cristina Fernandez Blanco**

Biharamuna

Mikel Garzaiarena

Bero-sapa itogarria. Elastikorik gabeko bi gazte txalupa baten gainean. Izerdi-patsetan azala, labainkor. Kopetan behera eguzki-krema erreka, distiratsu. Urruti dago portua. Urruti bueltatzeko ordua. Aspaldi ez dietela kanaberei erreparatzen; etzanak eta ertzaren kontra, txalupako bi arraunak bezala. Batel txikiaren dantza harmoniko hipnotiko lasaia bat egiten du gazteen mugikorrek bozgorailuetatik datorren abes-tiarekin: "zatoz hona zatoz ...". Egurrezko eserleku txurien, eguzkitako betaurrekoak jantzita. Oinarekin bateriaren danbor-kolpeak jarraituz, kulunka ia antzemanekin sortuz. Karga-karga, aldez jotzen die haize-heze-beroak, are gehiago itotzen gazteak.

–Harrapatuko al diagu ezer? –dio hozkailu eramangarritik beste garagardo fresko-freskoa ateraz eta berari jaurtiz.

–Honetan beste ordu erdi, eta legatz galanta eramango diat etxera! –algaraka, ukabilak elkar jo, eta beste eskua-ekin aurreko garagardo hutsa lata-pilora botaz.

Kaioen murmurioa entzun dute, baita hegaldia ikusi ere, garai, kostalderantz. Ufada izoztua atzealdetik, goitik behera, labana bailitzan. Lepatzeko iletxoak tente, izerdia hoztu, hotzikara. Enbata itsaso barrutik. Hasi dira urak bi-ziagotzen, loaldi luzetik piztia nola. Kulunkatik astinaldira. Arraunak hartu nahi dituzte, are gehiago aldentzen ari den batela porturatzen. Arazoak. Desagertu dira bi arraunak. Kanaberak erabili dituzte inozo, itzuli nahian. Korronte bizkorak hostoa baino ahulago daramatza barrura. Euria hasi du gogor, inoiz ez bezala. Ontzia urez betetzen. Gazia. Amurako pertza hustu, eta hasi dira ateratzen. Arinarin. Alferrik. Gero eta ur gehiago sartzen. Zulo galanta oinuen azpian; txalupako bi ertzei instintiboki helduta, olatuen oldarrak eramatearren. Buffalo Bill rodeoa litzateke, itsasoarengatik ez balitz, txalupa beharrez zaldi basatia balitz, badatorkien olatu itzel horregatik ez balitz.

Irentsi ditu itsasoak. Ontzia irauli, eta desagertu da lagunetako bat. Ur-lasterrak sakonera darama bestea. Esku ikusiezina hondora tiraka, herrestan, barrenera, gupidagabe. Urduri mugitzen ditu besoak eta hankak, itsaso-azala amestuz, ahituz saiakeran. Zurrunbiloaren atzaparrek oratu eta ez dute askatzen. Are urduriago. Are deskoordinatuago azalera ateratzeko saiakerak. Are hondorago. Aire falta zaio. Aire falta zaio, eta beteak ditu aho-masailak. Ahoa eta birrikak hustu, badoaz burbuilak gora, diosal egin gabe. Burbuila izango balitz. Badaki azken segundoak dituela, hondarrekoak. Badaki hondarra ukitzeko aukera handiagoa duela gainazala baino. Lausotzen guztia. Ilunegi.

Galdu du gazteak. Begiak itxi zaizkio. Hondora doa, isil, pisutsu. Itsasontziko aingura bezala, astun, zurrun.

Halako batean, begiak kliskatu ditu. Arnasten. Arrotz egin zaio ikusmira. Ez du aurrealdea ikusten, aldeak bai, ordea. Bi hegal ditu, zakatzak lepoan, oinik ez. Temperatura bikaina, ezin hobea; hotzik ez, ezta berorik ere, epel. Arin sentitzen da uretan, jostalari, airos. Bera bezalakoak ikusi ditu pilatuta, arrainez egindako horma zilindrikoak sortuz. Gustura dago bakarrik, itsas mundu berria ezagutzen, arroken azpian sartzen, ateratzen, algekin jolasten. Isiltasun itzela. Itzelegia, agian. Urrunean sena martxan jarri dion arriskua. Harrapari eta harrapakina. Bere atzetik hasi da zoro. Bat-batean iritsi da beste arrainengana. Talka egin, eta mordoiloan galdu. Gerturatu da harrapari handia, eta ziztu aldendu. Burrunba entzungai, gero eta zalapartatsua. Gainontzeko arrainen presioa nabari du inguruan. Arnasa falta zaio. Aienatu da uraren sentsazio freskagarria. Lehortzen nabari du azal labainkorra. Eguzki-izpiek bortizki iltzatzen diote gorputza, aldez alde. Ez dago enbatarik. Sarean harrapatuta ikusi du bere burua, lehenik; arrantzaz-ontzia, gero; marinela, azkenik. Oihuka hasi da gaztea, izuturik. Laguntza eskatu die arrantzaleei: aska dezaten. Erantzunik ez. Saiatu da azaltzen ondoko arrainari bera ez dela arraina, gizakia dela bera, gaztea gainera. Erantzunik ez. Pilatutako beste arrainekin saiatu da: ezin dutela amore eman; ados jarriz gero, sarea zulatu eta itzul daitezkeela uretara. Erantzunik ez. Laxatu da sarea. Erorketa askean guztiak, itsasontziaren erraietara.

Arnasestuka, zorabiatuta, esnatu da gaztea talka egin baino lehen. Blai. Arraina zenean baino hezeago. Argia sartzen da pertsianaren erretenetatik. Egarri-uholde batek asaldatu du. Ohea txalupa baino gehiago ari zaio mugitzen. Kostata, altxatu, eta ireki du atea. Korridorearen erdian kulero batzuk; sukaldeko atearen ondoan galtzontzilloak. Sukaldeko egurrezko mahaian lika-lika sei txupito-edalontzi. Azken arrastoak dituen ginebra-botila irekirik. Sakabanaturiko makina bat sagardo-edalontzi, urturik izotzak. Izozkailua ireki du: zorrotzotik ateratako legatz usaintsua parez pare. Keinu higuinarriz hartu du ur-botila fresko-freskoa. Ipurdia mahaiaren ertzean jarri, eta trago luzea eman dio: berpiztaile; bigarrena, bizigarri; hirugarrena, indargarri. Pauso-hotsak korridoretik sukaldara. Laguna atera zaio irribarre maltzurrez enkontrura.

–Berriz ere egin huen atzo arrantzan, ezta? –begia gaizto kliskatuz.

–Atera gintuan atzoko enbatatik –mahai gaineko alkohol-saldoari begira.

–Beste batzuek kanabera galdu genian!